

Artxiboen estatistika

2019



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Artxiboen estatistika

2019



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2021

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia: 2021 apirila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Landa-lana: IKERTALDE GRUPO CONSULTOR S.A.
Kordinazio teknikoa: ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL
Diseinua eta maketazioa: EPS, COMUNICACIÓN
Itzultzailea: IZO
ISBN: 978-84-457-3590-9

ARTXIBOEN ESTATISTIKA 2019 JARDUERARI BURUZKO OHAR METODOLOGIKOAK	9
1 EGIKARITZE-LABURPENA	11
2 ARTXIBOEN MAPA	12
3 ARTXIBOEN OINARRIZKO EZAUGARRIAK	14
3.1 TXERTATUTAKO POLITIKAK ETA BALIABIDEAK	19
3.2 DESKRIBAPEN-TRESNAK	21
3.3 DIGITALIZAZIOA	22
3.4 BISITAK ETA SARBIDEAK	24
3.5 EMANDAKO ZERBITZUAK	27
3.6 FINANTZAKETA	31
3.7 LANPOSTUAK	34

ERANSKINA

1. ERANSKINA: 255 artxiboen zerrenda eta azken emaitzak
https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/estadistica/artxiboak/eu_artxibo/adjuntos/artxiboak_2021_zerrenda.pdf
2. ERANSKINA: Biltzeko tresnak: galde-sorta
https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/estadistica/artxiboak/eu_artxibo/adjuntos/artxiboak_2021_galdesorta.pdf

Irudien aurkibidea

1.irudia.	Artxiboak, tipologiaren eta lurralde historikoaren arabera) (artxiboen sailkapena, abs.). 2019. urtea	13
2. irudia.	Artxiboen lurralde-banaketa, lurralde historikoen arabera. 2019. urtea	14
3. irudia.	Euskadiko artxiboen aktiboaren zifra handiak: funtsak, dokumentuak eta metro linealak. 2019. urtea	15
4. irudia.	Artxiboen sailkapena, titulartasunaren arabera (artxiboak, funtsak, metro linealak eta dokumentuak). (abs. + bol. %) 2019. urtea	16
5. irudia.	Artxibatutako dokumentazioaren antzintasuna: XX. mendea baino lehenagokoa, XX. mendekoa edo XXI. mendekoa (%)	16
6. irudia.	Dokumentu bereziak. 2019. urtea	17
7. irudia.	Dokumentazio bereziaren banaketa, tipologiaren arabera (abs. eta %). 2019. urtea	17
8. irudia.	Dokumentazio bereziaren banaketa, artxibo motaren arabera (%). 2019. urtea	18
9. irudia.	Dokumentazio bereziaren banaketa, artxiboaren tipologiaren arabera (%). 2019. urtea	19
10. irudia.	Politikak eta baliabideak dituzten artxiboak (%). 2019. urtea	20
11. irudia.	Politikak eta baliabideak dituzten artxiboak, tipologiaren arabera (%). 2019. urtea	20
12. irudia.	Deskribapen-tresnak dituzten artxiboak, tipologiaren arabera (%). 2019. urtea	21
13. irudia.	Erabilitako deskribapen-tresnak (abs.). 2019. urtea	22
14. irudia.	Artxiboen funtsen digitalizazio-maila (%). 2019. urtea	22
15. irudia.	Artxiboen funtsen digitalizazio-maila, tipologiaren arabera (%). 2019. urtea .	23
16. irudia.	Espedienteak digitalizatzeko erabilitako irizpideak (%). 2019. urtea	23
17. irudia.	Espedienteak digitalizatzeko oztopoak (%). 2019. urtea	24
18. irudia.	EAEko artxiboen erabiltzaileak 2019an	25
19. irudia.	Erabiltzaile presentzialen banaketa, sexuaren arabera (%). 2019. urtea	25
20. irudia.	Erabiltzaile presentzialen profila (%)	26
21. irudia.	Artxiboen zabaltze-egun eta orduak (abs. eta %). 2019. urtea	27
22. irudia.	Sarbidea: librea vs. Mugatua (%)	27

23. irudia.	Artxiboek eskaintzen dituzten kontsulta-bideak (%). 2019. urtea	28
24. irudia.	Liburutegi espezializatuak. 2019. urtea	28
25. irudia.	Beste zerbitzu batzuk (%). 2019. urtea	29
26. irudia.	Erakusketen tipologia (%). 2019. urtea	30
27. irudia.	Hezkuntza- eta kultura-zerbitzuak eta hizkuntzak (Euskaraz/Gaztelaniaz/ Bietan) (%)	30
28. irudia.	Kanpora ateratako zerbitzuak (%). 2019. urtea	31
29. irudia.	Aurrekontu propioa edukitzea (artxiboen %). Globala eta tipologiaren arabera. 2019. Urtea	32
30. irudia.	Aurrekontu propio globala, artxiboaren titulartasunaren arabera (euro eta bolumenaren %). 2019. urtea	32
31. irudia.	EAEko artxiboen ustiapen-kontua. 2019. urtea (euro eta %)	32
32. irudia.	2019ko inbertsioak (euro)	33
33. irudia.	Laguntzak, dirulaguntzak edo beste ekarpen batzuk jasotzea (artxiboen %). Globala eta tipologiaren arabera. 2019. urtea	33
34. irudia.	Laguntzen, dirulaguntzen eta beste ekarpen batzuen banaketa, artxiboaren jabetza motaren arabera (euro eta bol. %). 2019. urtea	34
35. irudia.	Artxiboetako lanpostuen lurralde-banaketa, lurralde historikoen arabera. 2019. urtea	34
36. irudia.	Lanpostuen banaketa, artxiboaren titulartasunaren tipologiaren arabera. abs., bol. % eta batezbesteko dimentsioa. 2019. urtea	35
37. irudia.	Lanpostuen banaketa, sexuaren arabera. Emakumeen lanpostuak, guztira eta artxibo-tipologiako (%). 2019. urtea	36
38. irudia.	Lanpostuen banaketa, langile motaren eta kualifikazioaren arabera (%). 2019. urtea	37
39. irudia.	Lanpostuen banaketa, kontratazio motaren arabera (%). Lanpostu finkoa, guztira eta artxibo-tipologiako. 2019. urtea	37
40. irudia.	Lanpostuen banaketa, jardunaldiaren arabera (%). Guztira Partziala (%). 2019. urtea	38
41. irudia.	Lanpostuen banaketa, euskarako hizkuntza-eskakizunaren arabera (%). 2019. urtea	39

Estatistika-eragiketa honen berredizioa egin zenean, eragiketaren diseinua eta edukia funtsean aldatzeko aukera planteatu genuen. Azkenean arriskutsua iruditu zitzaigun, ordea, eta irizpide *kontserbadoreago* baten alde egin genuen. Azken emaitzak ikusirik, intuizio hau berretsi delakoan nago: Euskadiko artxiboak baloratzeko inkesta-eredua berritu beharko litzateke, agian, bost edo sei urteko epean, bereziki "Dokumentu Ondarearen" ikuspegiaren zentratzen dela kontuan hartuta.

Hausnarketa horrek zerikusi handia dauka, Gobernantza Publiko eta Autogobernantza Sailarekin elkarlanean, *Agirien Kudeaketa Integralari eta Euskadiko Dokumentu Ondareari buruzko Lege* berritzailearen aurreproiektuan aurrera daramagun lanarekin. Intentsitate handiko berrikuspen bat eskatu du, eta, era batera edo bestera, "artxiboen unibertsoa" hurbiltzeko modu guztiz desberdin bat hartzeko garaia badelako intuizioa berretsi da.

Hori alde batera, inkestak zenbait hausnarketa orokor dakartza berekin. Lehen inpresioa oso positiboa da. Gezurra badirudi ere, ez gaude Ondarea "neurtzen" ohituta (ez, behintzat, artxiboen munduan); gure hurbilketa kualitatiboa izan da betidanik, eta ez kuantitatiboa. Inkestatzailearen pertzepzioa interesgarria da, eta datuak aurkezteko eta/edo interpretatzeko moduak ikuspegi desberdin bat ematen du aditzera.

Lehenago ere esan dudanez, inkesta-eredu horren araberrako azken estatistika-eragiketaren aurrean gaudela uste dut. Lan-ingurunea eta ingurune profesionala indar handiz berrorientatzen ari dira, ondaretik aparteko eszenatoki baterantz. Hau da, belaunaldi-aldaketa bat gertatzen ari da (izan ere, litekeena da dagoeneko gertatu izana), beste lehentasun batzuk adierazten dituen, eta, dokumentu-ondarea berreskuratu, babestu eta zabalitzeaz arduratu beharrean, kudeaketa digital globalaz kezkatzen dena. Eta geuk erraztu egin dugu ingurune berri hori agertzeko bidea. 30 urtean inbertsioak etengabe eginez lortu dugu balio historikoa duen dokumentazioaren zati handi bat dagoeneko deskribatuta eta/edo digitalizatuta egotea, eta horrela, toki-administrazioari batez ere, buru-hauste hori uxatzen lagundu diogu.

Nire ustez, hiru dira irudi globala desitxuratzen duten elementuak:

- a. Batetik, "kontzentrazio-prozesua" deritzona. Bizkaiko udal-artxibo historikoen zati handi bat Foru Artxiboan daude gordeta. Gogora ekarri behar da egoera irregular baten aurrean gaudela, eta, hau bezalako dokumentuetan, egoera hori bere gordintasun osoan nabari dela: Bizkaiko udal-artxiboak, edonon gordetzen direla ere, erroldatu gabe daude. Litekeena da artxibo-funtsa zatikatuta edo zatituta egotea, baina udalerrri bakoitzak bere artxiboa dauka.
- b. Komenigarria litzateke elizbarrutiko hiru artxiboak bereiztea, Euskal Herriko artxiboen panoraman oso bereziak baitira. Eusko Jaurlaritzak haien digitalizazioa finantzatu zuen, eta bereziki laguntzen du haiei eusteko lanetan. Pribatuak izaki, dokumentu-ondare ez-publikoari buruzko datuak desitxuratzen dituzte.
- c. Zeharkako zerbitzuak edo zerbitzu komunak neurtu beharko dira. Webguneko erabiltzaileei dagokiena funtsezkoa da adibidez, eta gainera, erabiltzaile horiek ez dira zenbatu inkesta egitean. Gehiengo izan dira, gutxienez, azken 5 urteetan. Gutxi gara zerbitzu hori eskaintzen dugun artxiboak, eta datuak kontu handiz tratatu beharko lirateke, inkesta global batean. Baina azpimarratzekoa da udal-artxiboen eta artxibo pribatuen zati bat *badator* atari komunean dagoela, kontsultatzeko prest. Bestetik, ikerketa birtual bihurtzeak eragin handia dauka, erabiltzaileentzako zerbitzuen kudeaketa globalean. Eta hori inkesta batek azaldu eta balioetsi beharko du.

Azken buruan, aurkeztutako datuek ingurune tirabiratsu, ezegonkor eta aldakor baten irudia ematen dute aditzera.

- ◆ Profil profesionalak aldaketetara oso irekita dagoela erakutsi du, erresilientzia deigarri batekin. 2020an, artxiboen profesionala talde arin baten zati da, hainbat itzaropen eta eskakizunen arteko mugan. Orain 10 edo 20 urte oraindik indarrean zegoen historizismo eroso ia-ia desagertu da, eta gaur egun bilakaera nahasi samarra dela esan dezakegu. Inkestak aditzera ematen duenez, ez da erraza artxibo baten eta dokumentazio-zentro baten arteko aldea zehaztea, biak ere zentzu zabalean hartuta. Bilakaera hori are gehiago areagotuko da. Hala, esate baterako, erakunde txiki gehienek benetako egoera zein den baloratu behar da, dedikazio osoko profesional aditurik ez dutela inoiz izan edo izango kontuan hartuta.
- ◆ Digitalizazio-politikak asimetrikoak dira, haien sustatzaileak dozena-erdira ere ez direlako iristen. Horregatik, datu globalak zuhurtzia handiz hartu behar dira. Esaterako, artxibo-funts asko zatika digitalizatu dira, dokumentu hauskorreneri eta eskatueneri edo garrantzitsueneri lehentasuna emanez: akta-liburuak, erroldak, eta, hala badagokio, dokumenturik zaharrenak.
- ◆ Logikoa denez, zabalkunde-politika aktiboak estu lotuta doaz artxibo historikoen kudeaketarekin. Oraindik ere ezer gutxi garatu dira, eta inkestaren datuak nahiko zehaztugabeak dira. Urte gutxi barru, eremu horretan diharduten artxibo-zerbitzuak oso bestelako modu batean posizionatu beharko dira, kultura-zerbitzuen ingurune berrian arazoa ez delako eskaintza, eskaria baizik.
- ◆ Azkenik, finantzaketa baloratzeko modua ere doitu beharko da. Gastua eta inbertsioa definitu eta gehitu behar dira, nola dokumentu-ondarearen babesean eta zabalkundean, hala zerbitzuaren kudeaketa orokorrean: giza baliabideak, gastu amortizatuak, etab. Ikerketa korapilatsuagoa da, baina Euskadik "Artxiboetan" zenbat gastatzen duen modurik zuzenena da.

Borja Aginagalde Olaizola

Euskadiko Artxibo Historikoaren arduraduna

Artxiboen estatistika 2019 jarduerari buruzko ohar metodologikoak

Artxiboen Estatistika 2019, ondarearen arloan eta Kulturaren Euskal Behatokiak egindako jarduera estatistikoaren barruan kokatzen da¹.

Estatistika hau egiteko abiapuntua izan da estatistika honen parte izango diren artxiboen datu-basea egitea. Hasierako unibertsoa aurreko estatistikan parte hartu zuten artxiboek osatzen dute, 2019an zuten egoerara egokituta.

Ildo horretan, bada aurreko Artxiboen Estatistikarekiko (2009) elementu nabarmen bereizgarri bat: Bizkaiko Foru Artxibo Historikoan udal-² edo toki-titulartasuneko artxibo askoren funts historikoak biltzeko edo integratzeko prozesua. Hala, Bizkaiko udal-artxibo horiek, zeinak egun dokumentazio administratiboa baino ez duten jasotzen, ez dira estatistika honetan sartu. Faktore horrek nabarmen eragiten dio bi estatistiken arteko konparazioari.

Biltze-prozesu honek ez du intentsitate-maila bera EAE osoan, eta hainbat kasuistikaren bidez irudiztatzen eta azaltzen da. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- ◆ Artxibo familiarak edo pribatuak. Zaintza-prozesuak optimizatu eta herritarrei gehiago zabaldu eta sarbidea eman nahi diote³.
- ◆ Hainbat elizbarrutitako Elizaren artxiboak, lurralde historikoetako Elizbarrutiko Artxibo Historikoan apurka-apurka txertatzen ari direnak⁴.
- ◆ Hainbat ordezkarietako artxiboak erakunde- edo enpresa-egitura zentraletan atxikitzea⁵

Azpimarratu behar da egungo estatistikan sartu direla 2009an aintzat hartu ez ziren 66 artxibo (horietako batzuk sortu berriak —hala nola Donostiako Tabakalerako artxiboa— edo Bilboko Arte Ederretako Museokoa eta Donostiako Itsas Museokoa). Artxibo horiek gehituta, lehen aipatu ez diren horietako batzuen egoera ere ezagutu nahi izan da; izan ere, administraziokoak edo Elizakoak ez diren beste kultura-arlo batzuk ordezkatzeko dituzte, hala nola, museoetako artxiboak, musikarekin lotutakoak, (besteak beste EOS - Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren artxiboa) edo komunikabideekin zerikusia duten artxiboak, hala nola EITB.

¹ Lehenengo jarduera 2009. urtean egin zen, eta helburu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) artxiboen sektorearen errealitatea ezagutzeko. Hala, eragilearen mapa definitu eta haien egoera eta jarduera ezaugarritu nahi ziren.

² Udal-titulartasuneko 87 artxibo guztira

³ Adibidez Artxibo familiarak —hala nola Zabala Etxeko artxiboa—, enpresa pribatuen artxiboak —hala nola Aurora Polar aseguru-etxearen artxiboa—, gaur egun Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoaren barruan dagoen Gipuzkoako Protokoloen Artxiboa, garrantzi nabarmenekoak berau, eta abar.

⁴ Gipuzkoako Elizbarrutiko Artxibo Historikoan txertatutako Gipuzkoako Elizaren 167 artxiboak; Gasteizko Elizbarrutiko Artxibo Historikoarekin bat egindako 531 parrokiak; Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboan txertatutako 219 parrokiak.

⁵ Irratietako artxiboak —adibidez, Radio Nacionalekoa, zeina duela gutxi atxiki da Madrilgo irrati-etxeako artxibo nagusira—.

Hala ere, informazioa biltzeko prozesuan zehar, 66 artxibo berri horietako batzuek ezin izan dute estatistikan parte hartu, hala birmoldaketa-prozesuan zeudelako (adibidez, Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularraren Artxiboa), nola dokumentazio-zentroa izatearen edo artxiboa izatearen arteko bereizketa ez dagoelako argi mugatuta. Hala, Hegoa dokumentazio-zentrotzat hartu da, daukan dokumentazio motagatik; Bilboko Emakumeen Dokumentazio Zentroa, berriz, nahiz eta egun katalogazio-prozesuan egon, egungo estatistikaren barruan sartu da, artxibotzat jotzen den dokumentu-bilduma bat duelako.

Alderdi hori, artxiboaren eta dokumentazio-zentroaren artean bereizteko lerro lauso hori, are lausoagoa izango da datozen urteetan; beraz, berriro aztertu beharko da gai hori inkestaren hurrengo edizioan.

Abiapuntu izan den datu-basea eraikitzeko jarraitutako prozesua deskribatu ostean, duela hamar urteko 309 artxiboetatik 255 sartu dira guztira.

Estatistikaren fitxa teknikoa

Jarduera	Artxiboen Estatistika 2019
Jardueraren datak	
- Direktorioetako datuak araztea	2020ko urtarrila
- Aurkezpen-gutuna igortzea	2020ko otsaila
- Informazioa biltzea	2020ko otsailetik azarora bitartean ⁶
- Informazioa balidatzea	Abendua
- Informazio ezaren egozte-prozesua	Abendua
- Txostena eta emaitzak	2021eko urtarrila
Biltze-modalitatea	<ul style="list-style-type: none"> - Nagusiki, LimeSurvey bidez jaso dira auto-erantzunak, eta telefono-deiak erabili dira errefortzutzat. - Zuzeneko iturriaren alternatiba gisa, informazioa beste bide batzuk jorratu dira: artxiboen webguneak.
Erroldatutako artxiboak	255
Estatistikara sartzeko inprimakia edo iragazki-galderak	<ul style="list-style-type: none"> - Funtsaren osaera: Historikoa edo historiko-administratiboa - Herritarrentzat zabalik dagoen artxiboa - Bertan pertsona bat izatea: artxiboaz arduratzen den pertsona bat izatea.

255 artxiboei buruzko informazioa biltzean, honako kasuistika hau hauteman da:

- ◆ 198 artxibok estatistikari buruzko informazioa eman dute.
- ◆ 46 artxibo ez dira estatistikan sartu, ez baitituzte gainditu 3 iragazki-galderak.

⁶ Informazioa biltzeko prozesua eten egin zen martxo eta ekaina bitartean, COVIDa zela eta.

- ◆ 11 artxibok adierazi dute beren dokumentu-bilduma beste artxibo batzuetan gordeta dagoela; horietako 7 EAEko artxiboetan daude, eta 4 EAetik kanpo, zehazki, Madrilan.

Eranskinean zehazten da artxiboen zerrenda zein den eta bakoitzak zer leku hartzen duen kasuistikan. Halaber, bertan adierazten da zergatik ez diren gainditu estatistika honetan artxibotzat hartzeko iragazki-galderak.

1 Egikaritze-laburpena

2019an, erroldatutako 255 artxiboen artetik, 198 erakundek betetzen dituzte estatistika honetan sartzeko oinarritzko hiru baldintzak: funtsetan dokumentazio historikoa izatea, herritarrentzako espazioak izatea eta zerbitzua emateko langileak izatea.

Artxibo horietako asko, ia % 73 (guztira 144 artxibo), udal-titulartasunekoak dira. Gainera, Euskadik honako hauek ditu: 29 artxibo pribatu, autonomia-erkidegoaren titulartasuneko 10 artxibo, Eliza-erakundeen 6, hainbat korporaziori lotutako 5 eta estatuaren titulartasuneko beste 4. Agerian geratzen da **titulartasun publikoko artxiboak gehiago direla** titulartasun pribatukoak baino.

Erakunde horiek 56 liburutegi espezializatu dituzte; horietatik 34 sarbide librekoak dira, baina 18k baino ez dute mailegu-zerbitzua. Halaber, artxibok nahikotxok eskaintzen dute kopiagintza-zerbitzua (% 62k inguru).

Erakunde horiek zaintzen duten euskal dokumentuen aktiboa honela kuantifikatzen da: 1.767 artxibo-funts, 13,6 milioi dokumentu baino gehiago⁷ eta 270.000 metro lineal inguruko bolumena (metro lineal horiek, neurri handi batean, toki-artxiboen eta autonomia-erkidegoko artxiboen artean banatzen dira).

Horrelako erakundeetako batzuek egiten duten eguneroko jardueran errealitate hauek azpimarratu behar dira:

- ◆ Artxiboen erdiak baino gutxiagok ditu berariazko politikak eta tresnak, eta hori toki-erakundeen egoerak baldintzatzen du erabat.
- ◆ Digitalizazioa aurrera doa (3/5 digitalizazio-prozesuan daude edo digitalizatuta daude); hala ere, gaur egun, EAEko artxiboen % 6 baino ez litzateke "erabat" digitalizatuta egongo.
- ◆ Artxibo horietako askok (% 78) deskribapen-tresnak dituzte, neurri handi batean inbentarioei lotutako elementuak eta, maila txikiagoan, datu-baseei eta katalogoei lotutakoak.

Artxibo-jarduerak **145.619 erabiltzaile mugiarazi zituen 2019an**, erdiak baino gehiago gizonak (% 55); bisita horiek nagusiki Elizaren artxiboen (% 45) eta udal-artxiboen (% 43) artean banatzen dira.

⁷ Dokumentu horien % 65 dokumentazio berezia da, eta gutxi gorabehera erdia artxibo pribatuetakoa. Zehaztu behar da pribatuak izateak erakusten duela artxibo-bildumak direla eta, beren jatorriagatik, orokortasunetik aldentzen direla.

Ikuspegi sozioekonomikoari erreparatuta, **525 pertsona ari ziren lanean 2019an EAeko artxiboetan**, batez ere emakumeak (% 69 inguru) eta erdi-mailako eta goi-mailako titulazioa zuten. Lanpostu finkoak ziren (% 71) baina arduraldi partzialekoak gehienak (lanpostu guztien % 46).

Azkenik, artxiboen % 18k baino zertxobait gutxiagok dute aurrekontu propioa, urtean 8 milioi euro ingurukoa; bestalde, erakunde horien guztien % 24k 7 milioi euro inguruko dirulaguntzak edo ekarpenak jaso dituzte.

2 Artxiboen mapa

EAeko datu-basean, **255 artxibo sartu dira guztira 2019an**, lurraldearen arabera honela banatuta: 129 artxibo Gipuzkoan, 68 artxibo Araban eta 58 artxibo Bizkaian.

Horiek zazpi tipologiatan daude sailkatuta, jarraian azaltzen den bezala:

- ◆ Erakunde kopuruari dagokionez, lehen kolektiboa toki- edo udal-artxiboak dira; guztira, 162 dira, Euskadiko artxibo guztien % 63 baino zertxobait gehiago. Horietatik 93 Gipuzkoan daude, 58 Araban eta 11 Bizkaian.
- ◆ Jarraian, titulartasun pribatuko artxiboak daude. Guztira 50 artxibo dira, eta, neurri handi batean, elkarteei edo fundazioei daude lotuta (33 artxibo). Honela daude banatuta lurraldearen arabera: 25 artxibo Bizkaian, 22 Gipuzkoan eta 3 Araban.
- ◆ Horiez gain, honako hauek kontabilizatu dira: korporazioen 17 artxibo (13 Bizkaian, 3 Gipuzkoan eta 1 Araban), titulartasun publikoko 11 artxibo (4 Bizkaian, 4 Gipuzkoan eta 3 Araban), Elizaren 6 artxibo (2 Gipuzkoan, 2 Bizkaian eta 1 Araban), Estatuko 4 artxibo (2 Gipuzkoan eta 1 Araban eta Bizkaian) eta 3 artxibo judizial (artxibo bana, lurralde historikoko).

1.irudia. Artxiboak, tipologiaren eta lurralde historikoaren arabera) (artxiboen sailkapena, abs.). 2019. urtea


ARTXIBO TIPOLOGIA/LURRALDE HISTORIKOA	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	
Estatuarena	0	2	2	4	% 1,6
Estatuarena, autonomia-erkidegoen eta probintzien kudeaketapean	1	1	0	2	% 0,8
Autonomia-erkidegoarena	3	4	4	11	% 4,3
Orokorra	2	1	0	3	% 1,2
Instituzionala (erakundeak, fundazioak, sozietateak...)	0	3	4	7	% 2,7
Legebiltzarrarena	1	0	0	1	% 0,4
Toki-administrazioa	58	11	93	162	% 63,5
Foru-aldundiak	2	2	4	8	% 3,1
Batzar Nagusiak	0	2	0	2	% 0,8
Instituzioak (erakundeak, fundazioak, sozietateak...)	0	0	0	0	% 0,0
Udalak	50	7	89	146	% 57,3
Bestelako toki-erakundeak (kuadrillak, partzuergoak, mankomunitateak...)	6	0	0	6	% 2,4
Judiziala	1	1	1	3	% 1,2
Elizarena	1	1	4	6	% 2,4
Korporazioak	1	13	3	17	% 6,7
Instituzio akademikoak	0	6	0	6	% 2,4
Elkargo profesionalak	1	3	2	6	% 2,4
Arrantzaleen kofradiak	0	1	1	2	% 0,8
Beste korporazio batzuk	0	3	0	3	% 1,2
Pribatuak	3	25	22	50	% 19,6
Enpresak	0	6	5	11	% 4,3
Pertsonalak edo familiarrak	1	0	2	3	% 1,2
Elkartek edo fundazioak	2	18	13	33	% 12,9
Beste titulartasun pribatu bat	0	1	2	3	% 1,2
GUZTIRA	68	58	129	255	% 100,0

3 Artxiboen oinarrizko ezaugarriak

Txosten honetan jorrotutako azterketak **EAEko 198 artxiboren** jardueraren berri ematen du. Erakunde horiek guztiek erroldan sartzeko baldintzak betetzen dituzte⁸.

Lurraldeari dagokionez, artxibo horien erdia baino gehiago, zehazki 105 artxibo, Gipuzkoan daude; 60 Araban, eta 33 Bizkaian. Nabarmentzekoa da azken lurralde horretan, lehen esan bezala, prozesu garrantzitsua egin dela udal-artxiboen funts historikoak Foru Artxiboan txertatzeko.

2. irudia. Artxiboen lurralde-banaketa, lurralde historikoen arabera. 2019. urtea



Oro har, EAEko artxibo horiek aktibo hauek dituzte gaur egun:

- ◆ **1.767 artxibo-funts** guztira⁹:
 - **Batez besteko dimentsioari dagokionez (artxibo bakoitzeko funts kopurua):** batez beste, 9 funts inguru daude EAEko artxibo bakoitzeko; 5 funts inguru artxibo bakoitzeko Gipuzkoan, 6 funts artxibo bakoitzeko Araban, eta 27 funts inguru artxibo bakoitzeko Bizkaian.
 - Lurraldeari dagokionez, funts horien erdia baino gehiago Bizkaiko artxiboetakoak dira (886 funts). Horietako ia % 29 Gipuzkoakoak dira (512 funts) eta % 21 Arabakoak (369 funts).
- ◆ **13.628.083 dokumentu historiko (68.829 dokumentu artxibo bakoitzeko) 267.237 metro linealeko** azalera "hedatuta".

⁸ Artxiboak dokumentazio historiko edo historiko-administratiboa du, herritarrentzat zabalik dago eta zuzendaritza bat du.

⁹ Funts guztien kopurua 2019/12/31n

3. irudia. Euskadiko artxiboen aktiboaren zifra handiak: funtsak, dokumentuak eta metro linealak. 2019. urtea



Aintzat hartuta artxiboen titulartasuna, honako hau nabarmendu behar dugu (kopurueta eta tipologiaren arabera):

- ◆ Agerian geratzen da, oro har, **titulartasun publikoko artxiboak gehiago direla** titulartasun pribatukoak baino.
- ◆ **Toki Administrazioaren** artxiboak, guztira, **144 dira, eta artxiboen % 73 inguru hartzen dute.** Gainera, toki-artxibo horiek euskal funtsen erdia inguru hartzen dituzte (875 funts), hau da, euskal dokumentuen bolumenaren % 35 baino zertxobait gehiago biltzen dituzte eta Euskadin artxibatutako dokumentuen % 29 jasotzen dituzte.
- ◆ **Titulartasun pribatuko artxiboek** (29 artxibo guztira), 200 funts baino gehixeago dituzte; hau da, **Euskadin artxibatutako dokumentuen ia erdia biltzen dute**¹⁰.
- ◆ **Autonomia-erkidegoaren titulartasuneko artxiboek** (10 artxibo), berriz, **Euskadiko dokumentuen bolumenik handiena (metro lineal guztien % 38 baino gehiago) hartzen dute.**
- ◆ Elizaren artxiboak dira, toki-administrazioaren artxiboen ondoren, **funts gehien duen artxibo mota** (461 funts, euskal funtsen % 26 baino zertxobait gehiago).
- ◆ Azkenik, honako hauen jardura ere aztertu da: korporazio ofizialei lotutako 5 artxibo (% 8tik gorako bolumena dute metro linealei dagokienez), 2 estatu titulartasunekoak eta beste 2 autonomia-erkidegoek eta probintziek kudeatzen dituzten estatuko artxiboak.

¹⁰ Lehen esan bezala, dokumentazio gehiena dokumentazio berezia da, artxibo-bildumak, eta erdia baino gehiago argazki-dokumentazioa da.

4. irudia. Artxiboen sailkapena, titulartasunaren arabera (artxiboak, funtsak, metro linealak eta dokumentuak). (abs. + bol. %) 2019. urtea


(Artxibo gehien dituenetik gutxien dituenara ordenatuta)

	Artxiboak		Funtsak		Metro linealak		Dokumentuak	
	abs.	Bol. %	abs.	Bol. %	abs.	Bol. %	abs.	Bol. %
Tokikoa ¹¹	144	72,7	875	49,5	94.597,98	35,4	3.957.453	29,0
Pribatuak ¹²	29	14,6	202	11,4	20.354,65	7,6	6.693.751	49,1
Autonomia-erkidegokoa ¹³	10	5,1	128	7,2	102.323,00	38,3	2.287.222	16,8
Elizarena*	6	3,0	461	26,1	14.494,00	5,4	288.487	2,1
Korporazioak ¹⁴	5	2,5	40	2,3	22.554,00	8,4	166.078	1,2
Estatuarena	2	1,0	7	0,4	600,00	0,2	152.443	1,1
Estatuarena, autonomia-erkidegoen eta probintzien kudeaketapean	2	1,0	54	3,1	12.313,00	4,6	82.649	0,6
Guztira	198	100,0	1.767	100,0	267.236,63	100,0	13.628.083	100,0

* Azpimarratu behar da elizbarrutiko hiru artxiboek, nahiz eta titulartasun pribatukoak izan, finantzazio publiko nabarmena jasotzen dutela digitalizazio- eta eguneratze-prozesuetarako.

Artxiboetako dokumentuen antzinasunari erreparatuta¹⁵, gehienak (% 59 inguru) XX. mendeko dokumentuak dira, % 22 inguru XXI. mendeko dokumentuak eta % 20 baino gutxiago XX. mendekoak baino lehenagokoak.

5. irudia. Artxibatutako dokumentazioaren antzinasuna: XX. mendea baino lehenagokoa, XX. mendekoa edo XXI. mendekoa (%)



EAEko artxiboek 8,9 milioi dokumentu berezi dituzte gutxienez, artxibatutako dokumentu historiko guztien % 65 baino zertxobait gehiago; hau da, 45.000 dokumentu berezi baino gehiago EAEko artxibo bakoitzeko.

¹¹ Foru-aldundiak, Batzar Nagusiak, instituzioak (erakundeak, fundazioak, elkarteak eta abar), udalak, beste toki-erakunde batzuk (kuadrillak, partzuergoak, mankomunitateak, partzoneriak...)


¹² Enpresak, Pertsonalak edo familiarrak, Elkarteak edo fundazioak, Beste batzuk.

¹³ Orokorra, instituzionala (Erakundeak, Fundazioak, Sozietateak, eta abar), Legebiltzarrarena

¹⁴ Institutio akademikoak, Elkargo profesionalak, Arrantzaleen kofradiak, Beste batzuk.

¹⁵ XX. mendekoak baino lehenagoko dokumentuak, XX. mendeko dokumentuak eta XXI. mendeko dokumentu berrienak.

6. irudia. Dokumentu bereziak. 2019. urtea




Tipologiaren arabera, dokumentu horien erdia baino gehiago (% 51) argazki-dokumentuak dira, % 13 inguru bideoak dira (% 95 Bizkaian daude) eta % 10 inguru dokumentazio elektronikoa da.

Gainera, EAEko artxiboek, *grosso modo*, 207.000 kartel baino gehiago dituzte, 112.000 soinu-erregistro baino gehiago (% 90 Gipuzkoan) plano baino gehiago (% 70 Bizkaian), gutxienez 69.400 postal, 48.100 marrazki baino gehiago (% 94 Gipuzkoan), gutxienez 44.700 mikrokoa 40.000 pergamino baino gehiago (% 95 Gipuzkoan), gutxienez 22.000 CD, 15.000 soinu-erregistro baino gehiago (% 75 Bizkaian) eta 5.100 grabatu baino gehiago.

Gainerako dokumentazio bereziak (beste batzuk) mota horretako dokumentazioaren % 19 hartzen du, eta neurri handi batean Bizkaian dago dokumentazio hori (% 98).

7. irudia. Dokumentazio bereziaren banaketa, tipologiaren arabera (abs. eta %). 2019. urtea

(Dokumentu berezi gehien dituenetik gutxien dituenera ordenatuta)



*Partiturak; aktak; nabigazio-egunkariak; azala duten pergaminozko liburuak; paskinak; pegatinak; ornamentuzko objektuak; trofeoak, margolanak, eta abar.

Alde horretatik, azpimarratu behar da dokumentazio berezi horren **% 61 baino zertxobait gehiago artxibo pribatuekin lotzen dela** (artxibo bakoitzeko 188.000 dokumentu berezi baino gehiagoko batez bestekoa). Horien artean, nabarmentzekoak dira DEIAren artxiboa, Labayru Fundazioa, Donostiako Zinemaldiaren artxiboa, Aranzadi Zientzia Elkartearen artxiboa eta Bilboko Athletic Clubena, besteak beste.


Bestalde, % 17 baino zertxobait gehiago toki-administrazio artxiboak dira (10.700 dokumentu berezi baino gehiago artxibo bakoitzeko), % 15 inguru autonomia-erkidegoko artxiboetan daude (132.000 dokumentu berezi artxibo bakoitzeko) eta % 6 baino ez Elizaren artxiboetan (85.000 dokumentu berezi artxibo bakoitzeko).

Toki-titulartasuneko artxiboen artean, honako 4 artxibo hauek nabarmentzen dira Araban: Arabako Lurralde Historikoko Artxiboa; Gasteizko "Pilar Aristegui" udal-artxiboa; eta Aiarako eta Artziniegako udal-artxiboak. Bizkaian bi artxibo nabarmentzen dira nagusiki: Bizkaiko Foru Artxibo Historikoa eta Bilboko Euskal Museoaren Artxiboa. Gipuzkoan, berriz, dokumentu berezien eskuragarritasunari dagokionez, 7 daude: Gipuzkoako Artxibo Nagusia eta Donostia, Bergara, Azkoitia, Oñati, Irun eta Hondarribiko udal-artxiboak.

Autonomia-erkidegoaren titulartasuneko artxiboei dagokienez, honako hauek daude: EITBren artxiboa, EAEko Administrazio Publikoaren Artxibo Nagusia, Trenbidearen Museoaren artxiboa, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren artxiboa eta Eresbil Musikaren EAEko artxiboa.

Azkenik, Elizaren artxiboen artean, Vitoria-Gasteizko Elizbarrutiko Artxibo Historikoa nabarmentzen da.

8. irudia. Dokumentazio bereziaren banaketa, artxibo motaren arabera (%). 2019. urtea



Azkenik, artxiboen izaeraren arabera, dokumentu berezi gehiago daude.

- ◆ Artxibo pribatuen kasuan, honako hauek ditugu: gainerako dokumentu bereziak (% 97,9), kartelak (% 87,2), soinu-erregistroak (% 78), argazki-dokumentuak (% 69,2), mikrokoopiak (% 44,8) eta CDak (% 43,4).

9. irudia. Dokumentazio bereziaren banaketa, artxiboaren tipologiaren arabera (%). 2019. urtea

	Estatuarena	Estatukoak, autonomia-erkidegoek eta probintziek kudeatzen dituztenak	Autonomia-erkidegoarena	Tokikoa	Elizarena	Korporazioak	Pribatuak	Guztira
Argazkiak	0,1	0,0	3,5	26,0	0,0	1,1	69,2	100,0
Bideoak	0,0	0,0	85,8	0,0	0,0	0,0	14,1	100,0
Beste batzuk	0,0	0,0	0,9	1,2	0,0	0,0	97,9	100,0
Dok. elektronikoa	0,0	0,0	2,1	11,7	57,4	0,0	28,8	100,0
Kartela	0,0	0,0	0,4	12,2	0,2	0,0	87,2	100,0
Planoak	0,8	0,9	0,2	76,6	2,7	0,0	18,9	100,0
Postalak	0,0	4,9	0,1	70,1	0,2	0,0	24,8	100,0
Marrazkiak	0,0	0,0	0,0	97,4	0,0	0,0	2,6	100,0
Mikrokopiak	0,0	0,0	46,4	2,7	6,1	0,0	44,8	100,0
Pergaminoak	0,0	0,3	0,0	96,8	1,0	0,0	1,9	100,0
CDak	0,3	0,0	20,9	30,1	5,4	0,0	43,4	100,0
Soinu-erregis.	0,0	0,0	89,4	0,2	0,2	0,0	10,3	100,0
Grabatuak	0,0	0,0	6,7	86,4	1,2	0,0	5,8	100,0
Batezbestekoa (artxiboko)	2.893	2.234	132.037	10.700	84.987	10.005	187.771	44.832

- ◆ Toki-administrazioaren dokumentuen artean, berriz: marrazkiak (% 97,4), pergaminoak (% 96,8), grabatuak (% 86,4), planoak (% 77) eta postalak (% 70).
- ◆ Autonomia-erkidegoko artxiboetan biltzen dira soinu-erregistroen % 89 baino gehiago, bideoen % 86 inguru eta mikrokopien % 46 baino zertxobait gehiago.
- ◆ Azkenik, Elizaren artxiboek dokumentu elektronikoen % 57 baino zertxobait gehiago biltzen dituzte.


3.1 Txertatutako politikak eta baliabideak

Artxiboen erdiak baino gutxiagok dituzte gaur egun politika eta tresna espezifikoak. Nolanahi ere, azpimarratu behar da artxiboen % 45ek baino gehiagok aplikatzen dituztela babes-politikak eta erakunde horien % 42k txertatzen dituztela digitalizazio-politikak.

Bestalde, oro har, EAEko artxiboen % 38k soilik ditu gaur egun dokumentu-kudeatzaile propioak: 3 artxibotatik 1ek baino ez du erabiltzen artxibo elektronikoa, % 30ek dokumentu-gordailua izango luke,

% 23k izango luke dokumentu-zerbitzari propioa, eta % 17k baino ez ditu gaur egun kalitate-politikak txertatzen bere jardueran.

10. irudia. Politikak eta baliabideak dituzten artxiboak (%). 2019. urtea



Errealitate hori toki-administrazioaren artxiboen egoeraren "ondorioa" da neurri batean. Agerian geratzen da tipologia horretan gainerako artxibo-tipologietan baino askoz ere ratio txikiagoa dutela tresnak eta politikak txertatzeari eta aplikatzeari dagokionez.

Aitzitik, artxibo pribatuen, autonomia-erkidegoko artxiboen eta Elizaren artxiboen % 70 inguruk kontserbazio- eta digitalizazio-politikak txertatu dituzte dagoeneko. Alde horretatik, nabarmentzekoa da autonomia-erkidegoko artxiboek eta artxibo pribatuek aurrerapen handiagoa egin dutela arlo horretan.

11. irudia. Politikak eta baliabideak dituzten artxiboak, tipologiaren arabera (%). 2019. urtea

	Tokikoa	Korporazioak	Elizarenak	Estatuarena	Estatuarena, autonomia-erkidegoen eta probintzien kudeaketapean	Pribatuak	Autonomia-erkidegoarena	Guztira
Babeste-politika	39,6	20,0	66,7	0	50,0	69,0	70,0	45,5
Digitalizazio-politika	33,3	40,0	83,3	50,0	50,0	65,5	70,0	41,9
Dokumentu-kudeatzaile propioa	31,9	60,0	50	50,0	50	55,2	60,0	38,4
Artxibo elektronikoa	18,8	60,0	50	100,0	0	72,4	80,0	32,3
Dokumentuen gordailua	23,6	40,0	33,3	50,0	0	55,2	60,0	30,8
Dokumentu-zerbitzari propioa	17,4	0,0	50	50,0	50	23,6	40,0	23,2
Kalitate-politika	11,1	40,0	16,7	0,0	100	37,9	20,0	17,2


3.2 Deskribapen-tresnak

Euskadiko artxiboen % 78 inguruk funtsetarako deskribapen-tresnak dituzte gaur egun¹⁶. Praktika hori dauden artxibo-tipologiaren multzora hedatu da: toki-artxiboen % 81 ingurura, eta Elizaren eta autonomia-erkidegoek eta probintziek kudeatzen dituzten estatuko artxibo guztietara.

Lurraldearen arabera, Araba nabarmentzen da, artxiboen % 90ek baitituzte deskribapen-tresnak; atzetik datoz Bizkaia (% 82) eta Gipuzkoa (% 69,5).

12. irudia. Deskribapen-tresnak dituzten artxiboak, tipologiaren arabera (%). 2019. urtea

(% handienetik txikienera ordenatuta)




Deskribapen-tresna horien artean, 2.312 unitate osatzen dituztenak, inbentarioak nabarmentzen dira: 1.343 dira, tresna horien % 58 baino zertxobait gehiago, eta horien artean % 76 inguru informatizatuta daude gaur egun. Bestalde, 525 datu-base zenbatu dira, 410 katalogo (% 81 baino zertxobait gehiago daude informatizatuta) eta 31 gida (% 59 daude informatizatuta).

¹⁶ Informazioa biltzeko, aztertzeko, antolatzeko eta erregistratzeko prozesuak, dokumentazioaren kudeaketa osorako mekanismo objektibo bat lortze aldera.

13. irudia. Erabilitako deskribapen-tresnak (abs.), 2019. urtea


(abs. handienetik txikienera ordenatuta)



3.3 Digitalizazioa


Egun, Euskadiko 5 funtsetatik 3k artxibo-funts digitalizatuak dituzte edo digitalizazio-prozesuan daude. Dena den, azpimarratu behar da artxiboen erdia baino zertxobait gehiago (% 54) digitalizazio-prozesu horretan murgilduta daudela gaur egun, eta soilik 12, hau da, EAeko artxiboen % 6 daudela dagoeneko digitalizatuta.

14. irudia. Artxiboen funtsen digitalizazio-maila (%). 2019. urtea



Tipologiaren arabera, honako hauek dira artxiborik "digitalizatuak": artxibo pribatuak (% 86), autonomia-erkidegoaren titulartasunekoak (% 90) eta autonomia- erkidegoek edo probintziek kudeatzen dituzten estatuko artxiboak (% 100). Toki-artxiboetarako dagokienez, erdiak baino gehiago (% 53,5) digitalizazio-prozesuan daude edo digitalizatuta daude dagoeneko: estatuko eta Elizaren artxiboen erdia eta korporazioetako artxiboen % 40.

15. irudia. Artxiboen funtsen digitalizazio-maila, tipologiaren arabera (%). 2019. urtea




a) Zergatik digitalizatzen dira espedienteak?

Funtsen digitalizazioa eragiten duten faktore nagusiak funtsen balio historikoarekin daude lotuta nagusiki (kasuen % 80 inguru: toki-artxiboen % 91 eta Elizaren artxiboen % 100).

Bestalde, artxiboen % 39 inguruk kontsulta gehien dituzten espedienteak digitalizatzen dituzte; % 35ek baino gehixeagok hirugarren batek eskatuta digitalizatzen dituzte artxiboak; % 22k "gaizki tratatutako" espedienteak digitalizatzen dituzte; eta, azkenik, artxiboen % 16k informazioa azkarrago bidaltzeko digitalizatzen dituzte.

16. irudia. Espedienteak digitalizatzeko erabilitako irizpideak (%). 2019. urtea

(Kopuru handienetik txikienera ordenatuta)




b) Zergatik ez dira espedienteak digitalizatzen?

Dokumentuen digitalizazio-prozesu hori geldiarazten duten oztopoak, batez ere, artxiboen posizionamenduarekin daude lotuta; hala, digitalizatu gabeko artxiboen % 63k baino zertxobait gehiagok ez dute digitalizazioa planteatu; egoera hori, batez ere, toki-administrazioko 43 artxibotan gertatzen da.

% 35ek baino gehixeagok langilerik ez izateari egotzi diote digitalizazio eza; % 27k, denbora faltari; % 22k, aurrekonturik ez izateari; eta % 19k, ekipamendu informatikoen defizitari.

17. irudia. Espedienteak digitalizatzeko oztopoak (%). 2019. urtea

(Kopuru handienetik txikienera ordenatuta)




3.4 Bisitak eta sarbideak¹⁷

2019an, EAEko artxiboek **145.619 erabiltzaile izan zituzten guztira.**

- ◆ Hona erabiltzaileek sarrien kontsultatutako artxiboak: **Elizarenak (erabiltzaileen % 45 inguru, 65.486 pertsona) eta toki-artxiboak (erabiltzaileen % 43 inguru, 62.036 pertsona).**
- ◆ Honela daude banatuta lurraldearen arabera: 54.296 erabiltzaile Bizkaian (% 37,3), 51.629 erabiltzaile Araban (% 35,5) eta 39.6394 erabiltzaile Gipuzkoan (% 27,2).

¹⁷ Bisitatat eta sarbideetat jotzen dira aretoan bertan eta posta elektronikoaren, telefonoaren, postaren eta sare sozialen bidez egiten diren kontsulta guztiak, jatorria edozein dela ere (herritar orokorrak, ikertzaileak, administrazioa bera...).

Lurralde historikoaren arabera banaketa (%)




Banaketa, artxibo motaren arabera (a.s.)

1. **65.486** erabiltzaile **Elizaren artxiboetan** eta **62.036** erabiltzaile toki-artxiboetan
2. **7.537** erabiltzaile **artxibo pribatuetan** eta **6.090** korporazioen artxiboetan
3. **3.826** erabiltzaile **autonomia-erkidegoko artxiboetan** eta **644** estatuko artxiboetan

Artxiboetara egindako bisitak edo erabilerak presentzialak dira neurri handi batean (% 77). Alabaina, badira aldeak; hala, toki-artxiboetan, bisita presentzialek bisiten % 81 inguru hartzen dute, eta Elizaren erregistroen kasuan, berriz, % 52 baino ez dira.


Nabarmentzekoa da gizonezkoak direla erabiltzaile gehienak: aurrez aurreko bisitak egiten dituztenen % 55 inguru. Gizonek erabiltzen dituzte batez ere artxiboak, eta hori artxiboen tipologia guztietan gertatzen da. Are gehiago, Elizaren erakundeen kasuan % 76 baino apur bat handiagoa da gizonen ehunekoa. Toki-artxiboen kasuan, erabiltzaileen % 48 emakumeak dira, eta, hortaz, emakumeak hobeto ordezkaturik daude.



Aintzat hartuta erabiltzaile presentzialen profila, erakundearen edo administrazioaren beraren ordezkariak nagusitzen dira (erabiltzaileen % 38, oro har, eta toki-artxiboen kasuan, % 44 inguru), eta, ondoren, ikertzaileak eta historialariak (% 32). Bigarren kolektibo horrek egin du 2019an Elizaren artxiboetara egin diren 3 bisitetatik 2.

Herritarrek, oro har, bisiten % 19 inguru egin dituzte (Elizaren artxiboen bisiten % 30 inguru). Azkenik, erakunde eta enpresetako ordezkarien kolektiboak % 7 baino ez du hartzen (artxibo pribatuen erabiltzaileen artean pisu handiena duen kolektiboa da, % 14 hartzen baitu), eta ikasleak erabiltzaileen % 4 baino ez dira (% 20ra estatuko eta % 14ra iristen dira autonomia-erkidegoko artxiboetan, hurrenez hurren).


20. irudia. Erabiltzaile presentzialen profila (%)



Euskadin artxiboak irekitzeko egun eta ordutegiari dagokienez...

- ◆ EAEko 4 artxibo baino ez daude zabalik larunbat, igande edo jaiegunetan: Eusko Itsas Museoaren artxiboa; Bizkaiko Golkoko Zentro Meteorologiaren artxiboa; Irungo udal-artxiboa eta Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa.
- ◆ Goizeko ordutegia gailentzen da: artxiboen % 99 daude goizez zabalik, eta % 19k baino ez du arratsaldean lan egiten.


21. irudia. Artxiboen zabaltze-egun eta orduak (abs. eta %), 2019. urtea



Artxiboetarako sarbidea librea da kasu gehienetan: 164 artxibo (% 83) herritarrentzat zabalik daude; 34 artxibok (% 17) baino ez dute sarbide mugatua (horietatik 16 erakunde pribatuak dira eta 10 tokikoak).

Sarbide mugatuko artxiboen artean, 7tan ikertzaile-txartelaren bidez sartu behar da, eta 5ek artxiboan sartzeko txartel propioa dute.

22. irudia. Sarbidea: librea vs. mugatua (%)




3.5 Emandako zerbitzuak

Atal honetan labur azaltzen dira artxiboek eskainitako zerbitzu motak; kontsultarako prestatutako kanalei lotutako zerbitzuen zorroa eta liburutegi espezializatua, kopiagintza-zerbitzua, erabiltzaileentzako prestakuntza, argitalpen-zerbitzua, hezkuntza- eta kultura-zerbitzuak, eta dokumentuak zaharberritzeko zerbitzuak.

Bide askotatik egin dakizkieke kontsultak artxiboei, eta honako hauek, bereziki, oso ohikoak dira: aretoan bertan (% 96), posta elektronikoaren bidez (% 86 baino gehiago), telefonoaren bidez (% 77) eta posta arrunt bidez (% 59 inguru). Gaur egun, sare sozialak oso gutxi erabiltzen dira kontsulta-bidetzat: EAEko artxiboen % 10ek ozta-ozta dituzte halakoak.

23. irudia. Artxiboei eskaintzen dituzten kontsulta-bideak (%), 2019. urtea




Guztira **56 artxibok (artxiboen % 28,3) dute liburutegi espezializatuak** (kopuruei erreparatuta, bereziki aipagarriak dira hauek: toki-artxiboetako 23 liburutegi, erakunde pribatuetako 16, autonomia-erkidegoko artxiboetan dauden 8 eta Elizaren artxiboetako 4).

Liburutegi horien aktiboa edo funtsak honela kuantifikatzen dira:

- ◆ 485.000 monografiatik gora (gutxi gorabehera 1/3 Elizaren artxiboetan daude jasota eta % 27 inguru artxibo pribatuetan)
- ◆ eta 40.700 argitalpen seriatu baino gehiago (% 80 baino gehiago artxibo pribatuetakoak).

24. irudia. Liburutegi espezializatuak. 2019. urtea




Liburutegi espezializatu horien artean,

- ◆ % 61 inguru (34 liburutegi) sarbide libreko guneak dira.
- ◆ 32 liburutegik (% 57) dute katalogoa (16k presentziala, 9k webgunekoa eta 7k bi motetakoak).
- ◆ Heren batek baino gutxiagok (18 liburutegi) dute mailegu-zerbitzua.

Eskaintako gainerako zerbitzuei dagokionez, nabarmentzekoa da kopiagintza-zerbitzua¹⁸, EAEko artxiboen % 62k eman baitute zerbitzu hori.

Artxiboen % 18k¹⁹ baino ez dute dokumentuak zaharberritzeko zerbitzua, % 16k baino gutxiagok²⁰ argitalpen-zerbitzua eta % 10ek baino ez dituzte egiten erabiltzaileentzako prestakuntza-jarduerak.

25. irudia. Beste zerbitzu batzuk (%). 2019. urtea



Prestakuntzari dagokionez, ekintzak gehienak bi hizkuntzetan ematen dira (% 68), 9 artxibotan presentzialki, 1ean online, eta beste 9tan bi modalitateetan ematen dituzte prestakuntza-prozesuak.

Gaur egun eskaintzen diren hezkuntza- eta kultura-zerbitzuen mapari dagokionez, honako tresna hauek nabarmentzen dira:


- ◆ Lehenik eta behin, artxiboen % 24 inguruk gaztelaniaz egiten dituzte bisiten % 74,5.
- ◆ Bigarrenik, artxiboen % 20k egiten dituzten erakusketak, neurri handi batean, aldi baterako dira (% 85).

¹⁸ Dokumentazioa sortu ez duten erakundeen eta erabiltzaileen enkarguz egindako kopiak

¹⁹ 36 artxibok dute zerbitzu hori, eta horietatik 30ek kanpora ateratzen dute jarduera; gauzak horrela, 6 artxibok baino ez dute dokumentuak zaharberritzeko zerbitzu propioa.


²⁰ 31 artxibotatik 24k erakundeetan integratutako zerbitzua dute, eta 7k zerbitzu propioa.

26. irudia. Erakusketen tipologia (%). 2019. urtea




Bestalde, artxiboen % 15 inguruk hitzaldiak eskaintzen dituzte, % 11 inguruk ikastaroak egiten dituzte, % 6k tailerrak eta % 2k zine-foruma dute.

27. irudia. Hezkuntza- eta kultura-zerbitzuak eta hizkuntzak (Euskaraz/Gaztelaniaz/Bietara) (%)



Azkenik, kanpora ateratako zerbitzuen artean, honako hauek nabarmentzen dira: digitalizazio-zerbitzua (artxiboen herenak azpikontratatu egiten du), garbiketa-zerbitzua (artxiboen % 24k) eta, hirugarrenik, dokumentuak zaharberritzeko zerbitzua (% 22k).

28. irudia. Kanpora ateratako zerbitzuak (%). 2019. urtea




3.6 Finantzaketa

Globalki, artxiboen % 18k baino apur bat gutxiagok dute beren jardunerako **aurrekontu propioa**; balio absolutuetan, **7.941.603 euroko aurrekontu global propioa** izan zuten artxiboek **2019an**. Neurri handi batean, autonomia-erkidegoen (% 49) eta udalen (% 29) artxiboek dagokie aurrekontu hori.

Halaber, aurrekontu propioa izatea edo ez artxiboaren beraren izaera edo tipologiaren arabera ere bada, besteak beste.

- ◆ Gauzak horrela, autonomia-erkidegoek eta probintziek kudeatzen dituzten estatuko artxiboek eta Elizaren artxiboek erreparatuta, ehuneko hori artxiboen erdira iristen da, eta autonomia-erkidegoaren titulartasuneko artxiboen kasuan, berriz, artxiboen % 30ekoa da.
- ◆ Artxibo pribatuen eta udal-artxiboen kasuan, artxiboen % 14an eta % 17an gertatzen da hori, hurrenez hurren.
- ◆ Aldiz, ez da halakorik gertatzen estatuko artxiboetan eta korporazioen eta erakundeen artxiboetan; izan ere, aurrekontu autonomoa dute.

29. irudia. Aurrekontu propioa edukitzea (artxiboen %). Globala eta tipologiaren arabera. 2019. urtea



30. irudia. Aurrekontu propio globala, artxiboaren titulartasunaren arabera (euro eta bolumenaren %). 2019. urtea

	Euro	Bol. %
1. Autonomia-erkidegokoa	3.850.829	% 48,5
2. Tokikoa	2.261.818	% 28,5
3. Pribatuak	1.231.144	% 15,5
4. Elizarena	436.562	% 5,5
5. Estatuarena, autonomia-erkidegoen eta probintzien kudeatzen dituztenak	161.250	% 2,0
Aurrekontu propio globala	7.941.603	% 100,0

Aurrekontu propioa duten artxiboen ustiapen-kontuetan, honako parametro ekonomiko hauek jaso ziren 2019an:

- Diru-sarreraren bolumena 7 bat milioi eurokoa izan zen. Diru-sarrera horien % 69 baino apur bat gehiago dirulaguntzetatik eta ekarpenetatik etorri zen; % 24, gutxi gorabehera, beste diru-sarrera batzuetatik, eta % 7 inguru egindako jardueratik.
- Gastuen bolumena 7,3 milioi euro ingurukoa izan zen; % 77 inguru langileen gastuek eragin zuten eta % 20 inguru gastu arruntek.
- Diru-sarreraren eta gastuen arteko saldo globalak 290.000 euro inguruko urteko defizita dakar berekin.
- Inbertsioetan, 1.075.000 euro gastatzen dira urtean. Horien % 87 inguru toki-administrazioaren artxiboetara dago lotuta.

31. irudia. EAEko artxiboen ustiapen-kontua. 2019. urtea (euro eta %)

	Euro	%
Jardueragatiko diru-sarrerak	494.505	% 7,1
Dirulaguntzak eta beste ekarpen batzuk	4.839.004	% 69,2
Beste diru-sarrera batzuk	1.662.752	% 23,8

	Euro	%
DIRU-SARRERAK GUZTIRA (A)	6.996.261	% 100,0
Gastu arruntak ²¹	1.483.173,	% 20,4
Langileen gastuak ²²	5.616.525	% 77,1
Beste gastu batzuk	185.132	% 2,5
GASTUAK GUZTIRA (B)	7.284.830	% 100,0
DIRU-SARRERAK - GASTUAK (A-B)	-288.569	

Oinarria: Aurrekontu propioa duten artxiboak (35 artxibo)

32. irudia. 2019ko inbertsioak (euro)

	Orokorra	Batezbestekoa (Inbertsioa artxiboko)
INBERTSIOA²³	1.075.002	30.714

Oinarria: Aurrekontu propioa duten artxiboak (35 artxibo)

Bestalde, eta datuak metatuta, **artxiboen % 24k jasotzen dituzte laguntzak, dirulaguntzak edo bestelako ekarpenak. 2019an, zehazki, 7.006.634 euro jaso zituzten kontzeptu horietan.** Laguntzen bolumen osoaren % 70 inguru udal-titulartasuneko artxiboetara bideratzen da eta % 19 inguru, aldiz, artxibo pribatuetara.

Edonola ere, honako hauek ere jaso zituzten laguntzak, bolumena gorabehera: Elizaren 3 artxibotatik 2k, artxibo pribatuen % 28k eta toki-erakundeen artxiboen % 24k.

33. irudia. Laguntzak, dirulaguntzak edo beste ekarpen batzuk jasotzea (artxiboen %). Globala eta tipologiaren arabera. 2019. urtea



²¹ Material inbentariaezina, berokuntza, lokalak mantentzeko gastuak, eta abar.

²² Langileek beren lanagatik jasotako soldatak, haborokinak eta abar, barnean direla egindako kontratazioagatik Gizarte Segurantzari ordaindutako kuotak.

²³ Gastuak guztira: bai higiezinarena eta ekipamenduena, bai, halaber, artxibo-funtsa, liburutegi osagarria eta material inbentariagarria handitzeagatik sortutakoa, edozein dela ere finantzaketaren jatorria.

34. irudia. Laguntzen, dirulaguntzen eta beste ekarpen batzuen banaketa, artxiboaren jabetza motaren arabera (euro eta bol. %). 2019. urtea


	Euro	Bol. %
Tokikoa	4.883.937	% 69,7
Pribatuak	1.308.620	% 18,7
Autonomia-erkidegoarena	692.500	% 9,9
Elizarena	121.577	% 1,7
Guztira	7.006.634	% 100,0

3.7 Lanpostuak

EAEko artxiboetan (198 erakunde) **525 pertsona zeuden lanean 2019an**. Honela zeuden banatuta lurraldearen arabera: 244 lanpostu Gipuzkoan, 159 Araban eta 122 Bizkaian.

Gauzak horrela, **2,7 lanpostu daude, batez beste, EAEko artxibo bakoitzeko**. Bizkaian kontzentrazio-prozesu bat gauzatu da, eta, ondorioz 3,9 lanpostu daude artxiboko. Ostera, Araban eta Gipuzkoan, 2,7 eta 2,3 lanpostu daude artxiboko, hurrenez hurren.

35. irudia. Artxiboetako lanpostuen lurralde-banaketa, lurralde historikoen arabera. 2019. urtea



Artxiboen titulartasunari erreparatuta, **EAEen jarduera horretan dabilizan langileen % 61,3 hartzen dute toki-erakundeek**. Batez beste, **2,2 lanpostu daude toki-erakunde bakoitzeko**.

Bestalde, artxibo pribatuak 91 lanpostu dituzte (3,1 lanpostu artxibo pribatuko); autonomia-erkidegoaren titulartasuneko artxiboak 63 (6,3 lanpostu autonomia-erkidegoaren artxiboko); autonomia-erkidegoak

kudeatzen dituzten estatuko artxiboek 19 lanpostu (9,5 lanpostu artxiboko, gehienez ere); Elizaren artxiboek 14 (2,3 lanpostu artxiboko); korporazioei lotutako artxiboek 10 (2 lanpostu artxiboko) eta estatuaren titulartasuneko bi erakundeek, berriz, 6 (3 lanpostu artxiboko).

36. irudia. Lanpostuen banaketa, artxiboaren titulartasunaren tipologiaren arabera. abs., bol. % eta batezbesteko dimentsioa. 2019. urtea

(Lanpostu gehien dituenetik gutxien dituenera ordenatuta)


	Enpleguak		Batezbesteko dimentsioa Lanpostu kopurua artxiboko
	abs.	Bol. %	
Tokikoa	322	61,3	2,2
Pribatuak	91	17,3	3,1
Autonomia-erkidegoarena	63	12,0	6,3
Estatuarena, autonomia-erkidegoen eta probintzien kudeaketapean	19	3,6	9,5
Elizarena	14	2,7	2,3
Korporazioak	10	1,9	2,0
Estatuarena	6	1,1	3,0
Guztira	525	100,0	2,7

3.7.1 Lanpostuen deskribapen laburra

➡ Lanpostu gehienak erdi- edo goi-mailako titulazioak dituzten emakumeek okupatzen dituzte

EAEko artxiboen jardura **nabarmen feminizatuta dago: gutxi gorabehera, lanpostuen % 69an daude emakumeak**. Errealitate hori artxibo-tipologia guztietan hauteman daiteke, eta are agerikoagoa da Elizaren artxiboetan (emakumeen lanpostuek guztizkoaren % 79 hartzen dute), toki-artxiboetan (% 74, gutxi gorabehera) eta korporazioei lotutako artxiboetan (% 70).

37. irudia. Lanpostuen banaketa, sexuaren arabera. Emakumeen lanpostuak, guztira eta artxibotipologiako (%). 2019. urtea



Egindako jarduerari eta kualifikazio-mailari dagokionez, honako hau azpimarratu behar da:

- ◆ **Artxiboetako langileek artxiboetan lan egiten duten enplegatu guztien % 63 hartzen dute.** Horien % 48k goi-mailako titulazioa dute eta % 8 inguruk, erdi-mailakoa.
- ◆ Administrazioako langileek plantillaren % 26,5 hartzen dute (% 14,5 administrariak dira, % 7,4 laguntzaileak eta % 4,6 mendekoak).
- ◆ Zerbitzuetako langile (lanpostuen % 10,5) gehienak garbiketako langileak dira (% 7,6).


38. irudia. Lanpostuen banaketa, langile motaren eta kualifikazioaren arabera (%). 2019. urtea

Artxiboko langileak	Goi-mailako titulazioa	% 48,0
	Erdi-mailako titulazioa	% 7,6
	Beste titulazio batzuk	% 3,6
	Beste teknikari batzuk ²⁴	% 3,8
Administrazio-langileak	Administraria	% 14,5
	Laguntzailea	% 7,4
	Mendekoa	% 4,6
Zerbitzuetako langileak	Segurtasuna	% 1,0
	Garbiketa	% 7,6
	Zaintza	% 1,1
	Beste zerbitzu batzuk	% 0,8
LANGILEAK GUZTIRA		% 100,0

► Lanpostu finkoak, baina gehienak jardunaldi partzialekoak

Artxiboetako jardueran, **pisu handia du enplegu finkoak: lanpostu guztien % 70,5 inguru dira finkoak**, eta hori da kontratazio-modalitate nagusia artxibo-tipologia guztietan: kontratuen % 100 dira finkoak Elizaren artxiboetan eta autonomia-erkidegoek eta probintziek kudeatzen dituzten estatuko artxiboetan; % 90 korporazioen artxiboetan; % 87,3 autonomia-erkidegoko artxiboetan eta % 63-% 67 gainerako artxiboetan. Langile finkoen kolektibo horretan, langileen % 55ek baino gehiagok dute erdi-edo goi-mailako titulazioa.

39. irudia. Lanpostuen banaketa, kontratazio motaren arabera (%). Lanpostu finkoa, guztira eta artxibo-tipologiako. 2019. urtea



²⁴ Liburutegiko langileak, zaharberritze-arloko langileak, digitalizazio arloko langileak, eta abar.

Ildo horretan, kanpoko lanpostuek²⁵ lanpostu guztien % 16 baino apur bat gehiago hartzen dute. Kanpoko lanpostu horiek oso lotuta daude toki-artxiboekin; izan ere, kanpora ateratako zerbitzuetako langileen % 81k egiten dute lan toki-artxiboetan. Langile horiek bi profil dituzte, nagusiki:

- ◆ batetik, kualifikazio-maila handiko kolektiboa dago (langileen % 45ek goi-mailako titulazioak dauzkate),
- ◆ eta, bestetik, garbiketan, zaintzan, segurtasunean eta beste zerbitzu batzuetan diharduten langile azpikontratatuak daude (% 41).


Behin-behineko langileak guztizkoaren % 9 baino apur bat gutxiago dira (horien % 80 baino pixka bat gehiago udal-erregistroetan daude lanean).

Azken figura garrantzitsua lankideena²⁶ da. Langileen % 4,3 dira lankideak, eta bereziki garrantzitsuak dira erregistro pribatuetan; izan ere, mota horretako erregistroen % 87k daukate mota horretako laguntzaileak. Gainera, kolektibo horretako langileek kualifikazio-maila altua dute (langileen % 91k goi-mailako titulazioak dauzkate).

Artxiboetako langileen erdia baino gehiago jardunaldi osoan aritzen dira, baina, hala ere, garrantzitsua da aipatzea **lanaldi edo jardunaldi partzialesan dabiltzan langileen ehunekoa ere handia dela;**

- ◆ are gehiago, enpleguen % 46an ikus daiteke errealitate hori.
- ◆ Izan ere, kolektibo horrek pisu handia du artxibo estataletan, pribatuetan eta toki-artxiboetan: jardunaldi partzialesan daude langileen erdia baino gehiago (% 52-% 54).

40. irudia. Lanpostuen banaketa, jardunaldiaren arabera (%). Guztira Partziala (%). 2019. urtea



Estatuarena	% 100,0
Pribatuak	% 53,8
Tokikoa	% 52,2
Elizarena	% 35,7
Autonomia-erkidegoarena	% 19,0
Korporazioak	% 10,0
Estatuarena, autonomia-erkidegoen eta probintzien kudeaketapean	% 0,0

²⁵ Zerbitzuak enpresa edo erakunde baten izenean ematen dituzten langileak, artxiboekin inolako kontratu-harremanik ez dutenak.

²⁶ Zerbitzuak trukean inolako ordainketa ekonomikorik jaso gabe ematen dituzten langileak

➡ **Euskara: EAEko artxiboetako langileen % 55 inguruk daukate egiaztatuta 3. HE (C1) edo 4. HE (C2).**

Artxiboetako langileen % 42 inguruk daukate egiaztatuta une honetan euskarako 3. hezkuntza-eskakizuna (C1 maila). Ehuneko hori


- ◆ % 58ra eta % 48ra iristen da goi-mailako titulazioak eta erdi-mailako titulazioak dauzkaten langileen kasuan, hurrenez hurren.
- ◆ Halaber, administrari eta laguntzaileen herenak dauka hizkuntza-eskakizun hori egiaztatuta (% 38 eta % 33, hurrenez hurren).
- ◆ Batez ere toki-erregistroetan egiten dute lan (% 63), eta lurraldeari erreparatuta, Gipuzkoan daude gehienak (% 54).

Euskara-maila gorena 4. hizkuntza-eskakizuna edo C2 maila egiaztatuz eskuratzen da, eta langileen % 13k daukate egiaztasun hori. Horien % 43k goi-mailako titulazioak daukate eta % 25 administrariak dira. Euskararen ezagutza-mailarik handiena duten langileak toki-artxiboetan (% 81) eta Gipuzkoan (% 75) daude nagusiki.

Bestalde, 2. HE edo B2 maila egiaztatuta duten langileek guztizkoaren % 23 inguru hartzen dute (% 17k 2. HE edo B2 dute, eta % 5ek 1. HE edo B1 maila).

Azkenik, langileen %23 inguruk ez daukate edo ez dute behar euskarako hizkuntza-eskakizunik.

41. irudia. Lanpostuen banaketa, euskarako hizkuntza-eskakizunaren arabera (%). 2019. urtea





www.euskadi.eus/kulturabehatokia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA